

EUSKARAREN Berri-papera

aurkibidea

1 • Quebec-eko Hizkuntza Politikarako ordezkariak Euskal Herrian

2 • Pertsonajea:
Luis Villasante

• LABURRAK:
Kilometroak 2001,
Beasainen
Maritxu Berritsu
irratsaioa
Nanai, haurrentzako
aldizkari berria

3 • Inauteriak
Euskal Herrian
• *Xagux@rrak:*
Donatoren tertulia

4 • *Euskaigintza*
deialdiaren erabakiak

Quebec-eko Hizkuntza Politikarako ordezkariak Euskal Herrian izango dira otsailean

Enpresetako hizkuntza-normalizazioa eta terminologia-lanak aztergai

Quebec-eko Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren hitzarmenaren baitan "Enpresetako Lan-Hizkuntzaren Normalizazioa" izeneko mintegia gauzatuko da Euskal Herrian otsailaren azken astean.



Iazko udaberrian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ordezkariak batek auktura izan zuen lan-munduan Quebec-en egindako bidea bertatik bertara ezagutzeko, eta horrekin batera, EAEko esperientzia zein lan-ildo berriak Quebec-en azaldu eta bertako esperientziarekin alderatzeko.

Oraingo honetan Quebec-eko Gobernuko Office de la Langue Française-ko (OLF) ordezkariak etorriko da Euskal Herria Quebec-eko enpresetako hizkuntza-normalizazioan izandako esperientzia, bilakaera eta emaitzak azaltzera. Besteak beste, enpresaren frantsestearen testuingurua eta bilakaera, frantseste-planen elaborazioa eta garapena, planaren jarraipenerako tresnak eta hartzaileen funtzio eta eginbarrei buruzko gaiak landuko dira.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatuko du mintegia eta enpresetan euskara-planak egiten dituzten zerbitzu-enpresa zein teknikariak gonbidatuko ditu bertara.

Terminologiari buruzko lan-mintegia

Enpresetako hizkuntza-planak aztertzeke mintegiarekin batera, beste bat ere burutuko da, terminologiari buruzkoa. Otsailaren azken astean izango da hau ere eta, bertan, Quebec-eko Office de la Langue Française-kegiten duen terminologia-lana azalduko da, metodologia, izen berriak onartzeko irizpideak, hauen bateratzea, terminologia-lanen ofizialtze eta zabaltzea, teknologia berriek terminologia arloan izan lezaketan eragina eta erabilera e.a.

Mintegia euskarazko terminologia lantzen duten erakundeei zuzendurik dago eta, beraz, parte-hartzaileen kopurua murriztua izango da. Quebec-eko Office de la Langue-ko aditu Carole Verreault-ek zuzenduko du lan-mintegia eta bertan parte hartzekoak dira, besteak beste, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, UZEI, HAEE, foru-aldundiak, Elhuyar, EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia. Esther Franquesa, TERMCAT, Kataluniako terminologi zentroko ordezkaria ere mintegian izango da.



QUEBEC

Laburrak

Kilometroak 2001, Beasainen

Otsailaren 23an aurkeztuko da aurtengo Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen jai handia. Beasaingo Andramendi ikastolak antolatuko du festaren 25. edizioa, "Garena garel-a, etorkizunean gaudela" izenburupean. Aurretik, kultur astea eratu dute Andramendikoek otsailaren 19tik 23ra. Parte hartuko duten hizlarietan ageri dira, adibidez, Jose M^a Sánchez Carrión, Bernardo Atxaga eta Pedro Migel Etxenike.

Maritxu Berritsu irratsaioa berriro antenan



EGUNKARIA

Gasteiz Irratian orain hamasei urte hasi ziren emititzen *Maritxu Berritsu*, neska-mutil gazteentzako irratsaioa. Hamasei urte honetan Jeni Prieto kazetaria izan da saioaren egile

eta zuzendaria. Beraren gaixoaldia bitarte, programaren emisioa behin-behinean etetea erabaki zuten saioaren arduradunek iazko irailean. Urte berriarekin, ordea, atzera antenan da *Maritxu Berritsu*, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 6etatik 7etara. Berri ona programaren zale diren haur, gazte eta helduentzat.

Nanai, haurrentzako aldizkari berria


Ikas Bi elkarteak, Akitaniako Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Euskal Herri osoko haurrei zuzendurik dagoen *Nanai* euskarazko hilabetekari berria sortu du. Aldizkariak, komiki eta ipuinez gain, jokoak, sukaldeko errezetak, eranskailuak, Olentzerori buruzko gehigarri berezia eta eskulanak biltzen ditu lehen alean. 5-8 urte bitarteko haurrei zuzendurik dago aldizkaria.



EGUNKARIA

Pertsonajea

Luis Villasante, gogoan



2000ko abenduaren 2an hil zen aita Luis Villasante euskaltzainburu ohia. Hemezortzi urtez Euskaltzaindiko lehendakari eta euskara batuaren sustatzaile nagusietarikoa hil zen Arantzazun.

Ama Aulestikoa eta aita Cadagua de Menakoa (Burgos), Gernikako Errenteria auzoan jaio zen Luis Villasante 1920ko martxoaren 22an. 11 urte zituela jo zuen Arantzazura lehenengoz, ikastera. Foruan eta Zarautzen ere ikasi zuen

baina Gernikara itzularazi zuten gerra garaian. Hain zuzen, jaioterrian zen 1937ko apirilaren 26 hartan, Gernika bonbardatu zutenean. 1939 arte ez zen itzuli Arantzazura. Hurrengo urtean Erriberrira bidali zuten, filosofia ikasketak egitera. Bertan, Salvatore Mitxelena izan zuen ikaskide. Irakasle, berriz, Jose Benito Mendia, Villasanteri eta Mitxelenari euskararekiko zaletasuna piztu zien irakaslea. 1945ean apaiztu zen Arantzazun eta teologia irakasten jardun zuen bertan, 1978. urte arte.

Euskaltzaindiko garaia

Federiko Krutwigek proposaturik izendatu zuten euskaltzain oso Luis Villasante, 1950. urtean. Berehala ekin zion euskal klasiko lanak aztertzeari eta, batik bat, Axularren *Gero*. 1961ean, *Historia de la Literatura Vasca* kaleratu zuen eta lan horrixe esker izan zuen belaualdi oso batek euskal literaturaren berri.

1968an, Arantzazun egindako bileran, euskara batuaren oinarriak jarri zituen Euskaltzaindiak eta, handik bi urtera, euskaltzainburu hautatu zuten Villasante. Aro berri bat hasi zen Euskaltzaindiarentzat, lan-batzordeak sortu baitziren lehenengoz.

Euskarazko lanak ez ezik erlijioari buruzkoak ere idatzi zituen Villasantek. Berak esatera, "Euskal Herriari eman diodan gauzarik ederrena eta baliotsuena erlijioaz euskaraz idatzi dudana da".

1988an utzi zion euskaltzainburu izateari eta Jean Haritzelarrek hartu zuen Luis Villasanteren lekukoa.

Euskalgintza deialdiaren erabakiak jakinarazi dira

Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak ematea da deialdiaren helburua

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren bigarren helburu estrategikoak diogenaren arabera, datozen hamar urteotako erronkarik nagusiarena, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta gaztelania bezain baliozkoa egitea da. Horretarako euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaltzea behar da. Horiek kontuan izanik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 134.000.000 pezeta / 805.356,22 euroko dirulaguntza eman du 2000. urtean, helburu horietara iristeko programak gauzatzeko dituzten pertsona juridiko pribatuentzat. Ondoko taulan ageri dira A eta B multzoetako eskatzaile, proiektu eta dirulaguntzari buruzko xehetasunak. (Hurrengo alean gainerako multzoetako datuak).

A MULTZOA: Euskararen ondarea (kantuak, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak.

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Aldudarrak Bideo Elkarte	Antzerkien bildumaren numerizatzea	983.040
Arabako Ikastolen Fed.	Bertsolaritza Araba	646.800
Bagera	Bertsozaletasuna	344.500
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Bertso txapelketa	476.000
Bizkaiko Ikastolen Elk.	Ume eta gazteen euskararen...	2.243.228
Durangaldeko herri kom.	Durangoko euskalkiak	337.350
Geu elkarte	Arabako hotsak	2.550.000
Hiria Liburuak	Zaraitzuko hiztegia	638.600
Hiria Liburuak	"Begiraleak"	560.000
Hiria Liburuak	Aita Patxi Etxebarria	315.000
Hori-Hori	Euskararen fonoteka	5.525.000
Komunikazio Biziagoa	Erakusketa ibiltaria	525.000
Lagatzu Zamudioko Elk.	Zamudioko euskara	97.500
Lagatzu Zamudioko Elk.	Zamudioko euskara	156.000
Mendebalde Elkarte	Euskararen korpua	639.253
Mendebalde Elkarte	Euskararen korpua	495.047
Ttakun Kultur Elkarte	Sorgin-dantza eta Santa Anako...	139.348
Ttakun Kultur Elkarte	Sorgin-jaia	50.000

A
M
U
L
T
Z
O
A

Euskararen Berri-papera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

B MULTZOA: Euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenak edo ekintza-programak, batik bat, haur eta gazteentzat prestatuak.

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Artez Euskara Zerbitzua	Euskal Papergintza bultzatuz	1.540.800
Asociación Goitibera	Goitiberaren harpidetzak ugaritu	465.000
Berbaro Elkarte	Kantu liburuaren zabalkundea	232.500
Durangaldeko herri kom.	Eraz aldizkariaren harpide kanp.	167.750
Egunkaria	Harpidetza kanpaina	7.200.000
Elhuyar Kultur Elkarte	Internet atari baten biderag.	477.000
Elhuyar Kultur Elkarte	Elhuyar hiztegi txikia	1.350.000
Espresio-gunea	Antzerkiaren alorrean euskara	577.500
Geu elkarte	Geu aldizkariaren harpidetza	385.000
Komunikazio Biziagoa	Harpidetza kanpaina	841.500
Euskal Soziolinguistika, SEI	Bat aldizkariaren zabalkundea	144.800
Tinko filmak	Zinea euskaraz kanpaina	1.029.688
Txatxilipurdi	Katalogoa	1.637.640
Zumaiaiko Gazte Batzordea	Baleike aldizkariaren harpide kanp.	217.250
Aurten bai Fundazioa	Gazteleku.com	3.000.000
Dobera Euskara Elkarte	www.hkronika.com	378.000
Erentzun Ikastola	Olentzeroren web gunea	1.237.500
Europa Press	Interneten web gunea	4.077.150
Goitibera	Goitiberaren web-orria	210.000
Ihardun Multimedia	Hitzen aztia	10.787.250
Irakasle Eskola	Hihezikaria	2.450.000
Komunikazio Biziagoa	Aisia: Jokoen sarea	4.927.968
Txatxilipurdi	Jolasplast	1.015.624
Xagunet.	Comunidad cultural virtual	117.000

B1
A
Z
P
I
M
U
L
T
Z
O
AB2
A
Z
P
I
M
U
L
T
Z
O
A